

ESAERAK



EGUZKIYA

- Arratzalde on D. Prantzisku
- Baita beorriyere andre Kataliñ.
- ¿Piskor dabil?
- Bay, bay, Jaungoikuari eskerrak. ¿Eta beorri?
- Ni orla orla bada.
- Anbat gaiztuago.
- Motel Samar nabill aspaldichuontan.
- ¿Bay eh?
- Jaten detanian eta jaten ezdetanian, sentitzen det emen alako rmarako bat, ¿bai aldaki beorrek nik zer sentitzen detan?
- ori ez da ezer. Aizeen bat...
- Koirapillua bezela jartzen zait ta.....
- Koirapilluaaskatzeko ez da ibiltzia baño gauza oberikan. Eguzki rra dago eta aprobechatu egin biar dira denbora abek.
- Bay ederregiyak. Udaren erdiyan gaudela dirudi. Ez dira komeni bora abek sasoi ontako.
- Egiya esaten du. Denbora erua da au.
- Bay andre Kataliñ. Ikusten du Marchuen erdiyan gaudela eta kanpuak nola aurreatu diran . Bildur naiz bada lengo urte batzubetan bezela, ez ote diran oraindik izotza batzubek etorriko, eta guztiya galduko.
- Jaungoikuak libra gaitzala.

—Orra bada. Oroituko da orain dala lau urte onlako denbora zogarriyarekin, nola loratu zan kanpo guztiya bere garaya baño len, eta zer pozgarriya zeguan, alaiturikan jende guztiya nola bazerritar ala kaletar esperantza gozuekin, bañere esagutu etzan *cosecha* izango zalakuan eta guztiyen gañez udare ta sagarrak eragiñez, etzala arbolik izango jaso lezakienik eman biar zituben frutubak, bañan jela ta kazkarabar aldi gogorcho batzuben sartu ziran era guztiya ondatu zan.

—Bay, bay. Kalte franko izan genduben geronek ere.

—Alperrik da. Sasoi bakoitzak bere denbora biardu kanpuentzat

—¿Eta zer esatendik personentzat? Batek erropak guchitzen ditu, etortzenda illunabarra eta berekin du kostaduko miña

—Bay eta gero brit batian guchiyena pentzatzian, mudatzen du charrera eta orduban izaten dira istillubak.

—Denbora au bildur garriya da, eta orain obelitzake kanpua gosatzeko euriya.

EURIYA

¡Au denbora likiskeriya!

—Bay, euriyonekin, ez dago bat ezertarako.

—Ni beñepin eche zuluana sartuta ez egoitiakan atera naiz.

—Denbora chachubonek baztar, guztiyak usteldu biarditu.

—¿Ez dakit nik oraingosian igeletan biurtuko otegean ere!

—Alde guztietan zirripriiziñak besterik ez daude.

—Bai; kalietan eziñ ibilduda bat puchu zulueta zartu gabe, eta erritik kanpora loya besterik ez dago.

—¡Sikiyera zintzo euriyaegingo baluke! Bañan euri chia au da oke-
rrena. Ezer ez bezela ari du beti, eta sartzen da gorputzian sañetarako.

—Umedadia au baño gauza charragorik ez da.

—Egiya esaten du. Obia litzake elurra egingo balu.

—Arrazoya du.

ELURRA

—¿Ykustendu zer denbora?

—¡Berriz esan beza!

—¡Ausen da elurra egiteko moduba!

—Bay. ¡Ta nork esan garay ontan!

—Ori, ori. ¡Ez gero guchi ere!

—Okerrena da bart jela egin dubela gañian ta badaukagu denbo-retako.

—¡Eta zein ibiltzenda kalietan chirristatu eta anka-ezurra edo beso bat austeko zalantzan?

—Denbora gogorra dago.

—Eta tristia. Onela segitzen badu amaika miseri ikusiko da.

—Bay, jende eskasiyan bizi danentzat echeko negarra.

—Nola nekazaiyak ez dauden ez ibiltzeko ta ez lanerako, erruki garriyak dira.

—Beste erosein denborekin ez da orlako penik ikusten.

—Ez. Denbora sekua egin ezkerro, alibiyo aundiya da gustiyentzat.

—Bay, bay.

SEKUA

—¡Zer denbora!

—¡Isillik bego! Ez naubela aitatu ere.

—Nere gorputza ez dakit nola dagon.

—¡Ain aize motela dabil!

—¡Zakarra!

—¡Ustela!

—¡Zikiña!

—¡Aizi'onek kanpo guztiyak igartu biarditu.

—Gorputzat bezela. Osasunentzat danik okerrena

—Ego-aize edo ero-aize onekin, istarreko miñ bat badakat eziñ mugitu naizela.

—Nik bada oñeko biatz guztiyak minberatubak, buru pisuba eta apeiturik ez.

—Denbora onek asko engañatzen du, ta danik erresenian arrapatzen dira, katarruak eta pulmoniyak.

—Denbora faltzua da.

—Bay ta orla segitzen badu zabalduko da bastanga.

—¡Euriya egingo baluke!

—¡Ori, ori! ¡Nunda freskura ura.....!

.....

.....

Denborak izaten du
makiña bat modu
batentzat charra danak
bestiak ona du.

Bañan kontentatzeko
zailchuak gera gu
otz, bero, aiziekin
udara ta negu.

M. SOROA.

1884^{ko} Marchuaren 29^{an}

